

SOZIO-INGURUMEN GATAZKAK ETA SOZIO-INGURUMEN DEMOKRAZIA. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA ETA KATALUNIako AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARTEKO IKUSPEGI KONPARATU BAT

Tesiaren egilea: Jone Martínez Palacios

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea

Saila: Politika eta Administrazio Zientzia Saila

Tesi-zuzendaria: Iñaki Barcena Hinojal

Tesiaren laburpena:

Doktore-tesi europar honek bi azterketa-objektu nagusi ditu: batetik, sozio-ingurumen gatazka lokalak, eta, bestetik, honi lotuta agertzen zaion sozio-ingurumen demokrazia. Horrela, aurkeztu dugun lan honek ingurumen gatazka-kortasuna, sozio-ingurumen krisiaren *irteera positiboa* eta demokraziaren kalitatea harremanetan jartzen ditu parte-hartzearen izaera eta dinamikaren sakontasunaren arabera. Beste hitz batzuetan esanda, lanak, sozio-ingurumen gatazkei ematen zaien erantzun (ez) parte-hartzailearen arabera sozio-ingurumen krisiaren irteera mota —hots, administrazioaren partetik, gatazka kudeatzeko modua, alegia, gatazkaren aurrean administrazioak hartzen duen jarrera— demokraziaren kalitatearen adierazle gisa hartuko du, bi aldagai horiek erlazionatzen dituzten zenbait lan teorikotan oinarrituta (Aguilera, 2006; Riechmann, 2009). Hots, tesiak, «hondamenaren kulturaren» adierazle diren sozio-ingurumen gatazken eszenatokitik abiatuta (Latouche, 2008), administrazioetatik eta gizarte zibiletik ematen den erantzunaren dinamika parte-hartzailea aztertzea bilatu du.

Horrenbestez, ikerlanaren hipotesien sorreran, bai helburuen identifikazioan, bai emaitzen ebaluazioan, galdera nagusi bat dago: ba al dira sozio-ingurumen gatazken garapenean, demokraziaren krisiaren eta sozio-ingurumen krisiaren irteera positiboan laguntzen duten ezaugarriak edo elementuak? Galdera hau da, hain zuzen ere, tesiaren lana bideratu duena.

Galdera horri erantzuteko, 2000. eta 2007. urteen artean Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) eta Kataluniako Autonomia Erkidegoan (KAE) garatu diren zortzi sozio-ingurumen gatazkaren azterketa kualitatibo eta kuantitatiboa egiten da. Denbora tarte horretan jasotako gatazka guztien inbentarioa egin ostean, hondakinen gestioaren eta garraio-azpiegituren sorreraren ondorioz sorburua aurkitzen duten sozio-ingurumen gatazkak izan ditugu aztergai. Hartara, ondoko hauek aztertu dira EAEn: Mutrikuko itsas portua handitzea, Urnietako hondakin errauskailua instalatzen saiatzea, Abiadura Handiko Trena (AHT) Atxondotik igarotzea eta Asparrenako Ecofuel fabrika. KAEn, berriz, Montcada-ko Ferreria errauskailua, Montcadako Asland-Lafarge fabrikaren errausketa proposamena, AHTa Bartzelonako Sagrada Familia auzotik igarotzea eta Castellolí-ko zabortegia

aztertu dira. Ikerlan honek accesit saria jaso du Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeak eskaintzen duen euskal autonomiari buruzko Jesus Maria Leizaola ikerketa-sarian (2011).